

Izena:

1. Esan nolakoak diren magnitude bikote hauek, zuzen **proportzional** [Z], **alderantziz** [A] ala **ez proportzional** [EZ] :

a) Erositako laranjen pisua eta eurengatik ordaindu den prezioa. []

b) Pertsona baten altuera eta bere adina. []

c) Horma egiten duten langileen kopurua eta horma hori egiten eman duten denbora. []

d) Langile batek egindako lanegun kopurua eta irabazten duen dirua. []

e) Lan bat egiten diharduten langileen kopurua eta horretan ematen duten denbora. []

f) Pertsona baten adina eta bere pisua kilogramotan. []

g) Erositako boligrafo kopurua eta ordaindu den prezioa (boligrafo guztiak prezio berekoak direla joko dugu). []

h) Txango baten parte hartzen dutenen kopurua eta autobusa ordaintzeko bakoitzak ipintzen duen dirua (autobusaren prezio totala ez da aldatzen). []

i) Kamioi baten gurpil kopurua eta hartzen duen abiadura. []

2. Bost kilogramo laranjaren prezioa 16,5 euro da. Zein da zazpi kilogramorena?

3. Lan zehatz bat 3 langilek 12 ordu ematen dute egiten, zenbat luzatuko dira lan berbera egiten 4 langilek?

4. Sei litro itsasoko uretan 150 gramo gatz badaude, zenbat gatz aurkituko dugu 15 litrotan? Eta lau litrotan?

5. 90 km/h-ko abiadura daraman kamioiak 4 ordu behar ditu bi hiriren arteko distantzia egiteko. Zenbat denbora beharko du 80 km/h-ko abiaduran?

6. Herri batean 7000 biztanle zeuden baina, urtetan zehar, % 20 hirira joan dira. Zenbat biztanle *geratu dira* herrian?

7. Denda batean likidazioan daude eta dena % 40 beheratua dago. Zenbat kostatuko zait gauza bat lehen 4'20 € balio zuena?